

Kandido Zubizarreta hil da, 55 urtez Arantzazuko artxibozaina izandakoa

► Hango liburutegiaz ere arduratu zen bost hamarkadatan zehar eta «harrera ona egin zien beti ikertzaileei»

FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. DV. Kandido Zubizarreta, 55 urtetan zehar Arantzazuko santutegiko artxibozain eta liburuzaina izandakoa, atzo hobiratu zuten, Arantzazun bertan. Herenegun hil zen, 92 urte zituela, eta urtebete egin zuen erretirata, gaixotu eta gero.

Aspalditik anai Kandidoren laguntzaile izandako Joseba Etxeberria frantziskotarra arduratuko da aurrerantzean bibliotekaz eta artxiboaz.

«Bere azken proiektua burutu gabe joan da Kandido –adierazi digu Paulo Agirrebaltzategi frantziskotarrak–. Arantzazu aldizkarian santutegiari buruz argitaratutako material guztiak bildu eta koadernatzen ari zen. Baina gehiegi zen lan hori berarentzat; kontuan hartu behar da 1920an sortu zela aldizkaria».

Usurbilgo Zubietan jaioa zen Zubizarreta, 1912an, baina azkoiartzat zeukan bere burua, haurtzaro gehiena han pasa zuelako. Apaiz berria zelarik, bi urtez kapelau jardun zen 36ko gerra zibilean. Izan ere, anai bat soldaduskara eraman ez zezaten bere burua eskaini zion Franco-ren armadari.

«Arantzazuko liburutegi eta artxiboa ez dira soilik Gipuzkoarako. Frantziskotarren probintzia osorako dira, hau da, baita Santander, Burgos, Valladolid, Soriarako... Lan oso garrantzitsua egin du Kandidok», jarraitu du Agirrebaltzategik. «Berarengana joaten ziren ikertzaileei harrera ona egiten zien beti, eta gazte askoren adiskide bihurtu


zen. Gizon patxadosa zen, ofizio honetarako oso egokia ».

Zubizarretak honela deskribatu zuen bere biblioteka 2001eko *Arantzazu. Euskal santutegi bat XX. mendean* liburuan: «Aran-

tzazuko bibliotekako katalogo garrantzitsuenak guztiz informatizaturik daude jadanik, horrek dakartzan onurekin. 40.000 liburu-fitxa baino gehiago sartu ditugu, eta kontuan hartuz obra

katalogatuek askotan tomo bat baino gehiago izaten dutela, kalkulatu dugu gure bibliotekak orain 80.000 liburu izango dituela».

Zubizarretak egindako katalogo bati esker, fraide frantziskotarraren sermoi-bilduma zabal bat plazaratuko dute aurki frantziskotarraren eurek eta Labayruk. ■



Anai Kandido. [MIKEL FRAILE]